

2016-01-26ko OHIKO OSOKO BILKURA

Irurako udaletxean, 2016ko urtarrilaren 26an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesus Leunda Gurruchaga izan da, udalbatzako alkate-lehendakaria, eta gai-zerrendako gaiak aztertzeke, zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Jose Ignacio Imaz Bengoechea eta .

-Azaldu ez diren zinegotziak: Olaia Nieto Legarra (ohartarazi zuen ezin zuela etorri).

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, bertara agertu baita gutxieneke partaide-kopurua, Toki Jardunbidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

LEHENENGO GAIA:

UDALBATZAREN AZKEN AKTAK (2015-12-22) ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2015eko abenduaren 22ko ez-ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa aurkezten da.

Alkateak adierazi du aktaren zirriborroak akats batzuk dauzkadala eta idazkariarekin hitz egin ondoren bere proposamena da mahaien gainean uztea.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak erantzun du atzo komentatu zuen bezala.

Idazkariak ere adierazten du galde-erregu zatiaren testua aldatu dela, udaleko euskara teknikoaren laguntzarekin. Gainera, adierazten du aurkeztu diren zuzenketarekin, testu bateratuta osoa osatuko dela eta berriz bidaliko

dela zinegotziei aztertzeke eta bere on iritzia, ahal ba da, emateko. Eta azkenean, aurkeztuko da datorren udalbatzan onartzeko.

Ainhoa Ugalde zinegotziak berriz eskatzen du akta lehenago bidaltzea, ostegunean, bestela ez dagoela denbora asteburuan gaiak aztertzeke. Eta gainera Batzorde Informatiboak biltzen badira udalbatzaren aurretik, ez dagoela geroago denbora taldearen artean gaiak aztertzeke.

Alkateak erantzun du legeak eskatzen duela bakarrik 48 ordu aurretik bidaltzea dokumentazioa.

Ainhoa Ugalde zinegotziak erantzun du agian Batzordeak lehenago egin behar direla gero aukera izateko gaiak prestatzeko.

Alkateak dio horrela egiten direla zinegotziei egokiagoa izateko.

Ainhoa Ugaldek eskatzen du agian Batzordeak lehenago izatea.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2015/261 DEKRETUTIK 2015/285 DEKRETURA ARTE; 2016/01 DEKRETUTIK 2016/13 DEKRETURA ARTE.

Alkateak dekretu hauen berri eman dio Udalbatzari: 2015eko 261. zenbakitik 2015eko 285. zenbakira bitartekoak; eta 2016/01 dekretutik 2016/13 zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Ainhoa Ugalde zinegotziak dio Dekretu batean (gabonetako gastuak) agertzen direla kopururik jarri gabe.

Alkateak geratu da dekretuak erreparatzeko.

Bestela ikusi dute Itxaso Urkia anderea kontratatu dela jubilatuekin lana egiteko eta galdetzen du ea nola izan den kontratazio hori.

Alkateak erantzun du lehen jubilatuekin ibiltzen zela eta berak gustua ziren eta eskatu zutela pertsona hori aukeratzea zerbitzua emateko.

Ainhoa Ugalde zinegotziak erantzun du ea ez den eman aukerarik beste pertsona batek zerbitzu hori emateko.

Marta Castrillo zinegotziak dio hitz egin zutela yoga ikastaroak ematen duen pertsonarekin, baina ezin zuela eta hori ikusita erabaki zutela Itxaso Urkia aukeratzea.

Ainhoa Ugalde zinegotziak dio ez dela egin deialdi publikorik. Eta beraiei leporatu zietela lehenengo legealdian hori ez egitea, eta gauza bera egiten ari direla oraingokoak. Eta bukatzeko dio ez dela sartuko gehiago gai honetan.

HIRUGARREN GAIA

IRURAKO HAPOREN 1. ALDAKETA PUNTUALAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO (APROBACIÓN PROVISIONAL, SI PROCEDE, DE LA 1ª MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PGOU DE IRURA.

2012ko maiatzaren 22an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu zuen.

Une honetan Udalak behin-behineko aldaketa bat egin nahi dio Planari Katategi Bailarako 18 eremuan dauden Angulas Aguinaga eta Inmobiliaria Amocar industrien instalazioak zabaltzeko helburuarekin.

Hori ikusita, Udal honek 2015eko azaroaren 24an egindako bileran erabaki du hasiera baten aldaketa onartzea eta jendaurrean jartzea eta dagozkion txostenak eskatzea.

Jendaurrean epea hasita, ez da alegaziorik aurkeztu.

Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena eman du errepide arloan.

Ikusita idazkariaren/kontuhartzailearen txostena.

Hirigintzako legediak jasotakoarekin adostasunean.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez, udal kide kopuru legezko gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, erabaki hau hartu du:

Con fecha 22 de mayo de 2012, la Diputación Foral de Gipuzkoa aprobó el Plan General de Ordenación Urbana de Irura.

En este momento este Ayuntamiento quiere proceder a la modificación puntual del mismo al objeto de promover la ampliación de las instalaciones de las industrias de Angulas Aguinaga e Inmobiliaria Amocar en el Area 18 Katategi Bailara del Plan.

Ante ello este Ayuntamiento en sesión celebrada el 24 de noviembre de 2015, ha acordado aprobar inicialmente la modificación y someterlo a información pública y emisión de los informes correspondientes.

Habiéndose procedido a la apertura del periodo de información pública, no se ha presentado alegación alguna.

Así mismo se ha emitido informe favorable de La Diputación Foral de Gipuzkoa, en materia de carreteras.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

De acuerdo con lo dispuesto en la legislación urbanística .

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, que representan el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la

Corporación, lo siguiente:

AKORDIOA:

Lehena.- Udal honek egin duen Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 1. Aldaketa Puntuala onartzea behin behinean .

Bigarrena.- Espedientea bidaltzea EAeko Lurralde Antolamenduko Batzordeari, txostena idatz dezan.

Hirugarrena.- Behin aurreneko izapidea amaituta, Gipuzkoako Foru Aldundiari espedientea igorriko zaio , behin betiko onarpena emateko.

ACUERDO:

Primero.- Aprobar provisionalmente la Modificación Puntual nº 1 del Plan General de Ordenación Urbana de Irura formulada por este Ayuntamiento, sin introducir modificación alguna.

Segundo.- Remitir el expediente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País para la emisión del informe correspondiente.

Tercero.-Una vez efectuado ese trámite remitir el expediente a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación definitiva.

LAUGARREN GAIA
IRURAKO BAKE-EPAILE TITULAR ETA ORDEZKOA PROPOSATZEA
EUSKAL HERRIKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIRA.

EAeko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Idazkaritzak ofizioz bidali du idazkia, eta adierazten du Irurako Udalak duela laur urte izendatu zituela bake-epaile titularra eta haren ordezkoa, eta epemuga iritsi denez Udalak epaile berriak izendatu behar dituela. Orain arteko epaile titularra izan da Izakun Luluaga Zobelzu andrea.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 99. artikulua jasotakoa betez, Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegirik ez dagoen udalerrri bakoitzean Bake Epaitegi bat egongo da, eta legeak zehaztutako arlo zibileko eta penaleko prozesuak ezagutuko dituzte.

Por parte de la Secretaría de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, se ha remitido oficio en el que se nos señala que habiendo transcurrido el periodo de cuatro años por el que fueron nombrados los Jueces de Paz Titular y Sustituto de este Municipio de Irura, el Ayuntamiento debe de proponer nuevos jueces. Hasta ahora ha sido Juez Titular D^a. Izakun Luluaga Zobelzu.

De acuerdo con lo dispuesto en el art. 99 de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, Orgánica del Poder Judicial, en cada municipio donde no exista Juzgado de 1^a Instancia e Instrucción, habrá un Juzgado de Paz y conocerán de los procesos en materia civil y penal que la ley determine.

Dagokion Auzitegi Nagusiaren gobernu-salak lau urterako izendatuko ditu bake-epaile titularrak eta haien ordezkioak, eta dagokion udalak hautatutako pertsonak hartuko dituzte karguak. Udaleko Osoko Bilkurak, haren kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, legezko baldintzak betetzen dituzten eta eskaera egin duten pertsonen artean hautatuko ditu hautagaiak. Eskatzailerik ez balego, Osoko Bilkurak nahierara hautatuko lituzke. Horretarako, Udalak deialdi publikoa egin du eta Udaleko iragarkitaulan eta probintziako aldizkari ofizialean iragarri da (2015-12-04).

Kontutan harturik, eskaera hauek aurkeztu direla:

- Izaskun Luluaga Zubelzu.
- Cristina Arrieta Lardies.
- Andoni Aguirreurreta Lazkano.
- Izarra Begoña Gaminde.

Zuzenbidean lizentziatuak ez badira ere, bake-epaile izendatu ahal izango dira Botere Judizialaren Legeak ezarritako baldintzak (espainiar nazionalitatea eta adinez nagusia) betetzen dituzten pertsonak, baldin eta ezgaitasunik ez badute (ezindu fisikoak edo psikikoak, legez ezgaituak) edo bateraezinak badira (kargu publikoak, abokatuak edo prokuradoreak edo alderdi politikoetako eta sindikatu etako kideak).

Ikusirik Udal honetako Idazkari-Artekariak, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileko 54 art.-an erabakitakoaren arabera igorritako

Los Jueces de Paz Titular y sus sustitutos, serán nombrados por un periodo de cuatro años por la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia correspondiente y recaerá en las personas elegidas por el respectivo Ayuntamiento. Serán elegidos por el Pleno del Ayuntamiento, con el voto favorable de la mayoría absoluta de sus miembros, entre las personas que, reuniendo las condiciones legales, así lo soliciten. Si no hubiere solicitante, el Pleno elegirá libremente. Para ello, se ha anunciado por el Ayuntamiento mediante convocatoria pública y se publicará en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en el Boletín Oficial de la Provincia (04-12-2015).

Considerando que se han presentado las siguientes solicitudes:

- Izaskun Luluaga Zubelzu.
- Cristina Arrieta Lardies.
- Andoni Aguirreurreta Lazkano.
- Izarra Begoña Gaminde.

Podrán ser nombrados Jueces de Paz, quienes, aun no siendo licenciados en Derecho, reúnan los requisitos establecidos en la Ley del Poder Judicial (nacionalidad española y mayor de edad) además de no estar incurso en las causas de incapacidad (impedidos físicos o síquicos, inhabilitados legalmente) o sean incompatibles (cargos públicos, abogados o procuradores o miembros de partidos políticos y sindicatos).

Visto el informe del Secretario-Interventor, emitido de acuerdo con lo señalado en el art. 54 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril.

txostena.

Horren aurrean, Udaltzarak bertan daudenen aho batez, zeinak, aipatu Lege Organikoko 101 art.-an erabakitakoaren arabera, Udaltzarak partaideen zilegizko gehiengo osoaren aldeko botoa ordezkatzeko duten, ondorengo erabakitzen du:

ERABAKIA:

Lehenik.- Irurako Bake Epaitegiko Lehenengo Bake Epaitetarako, N.A.N.-ren zka. 72.436.985 duen eta Irurako Zillar Kalea 9 helbidea duen Izaskun Luluaga Zubelzu And. izendapena proposatzea.

-Irurako Bake Epaitegiko Ordezko Bake Epaitetarako, N.A.N.-ren zka. 44.170.782-H duen eta Irurako Kale Txiki, 6 3. C bizi den Andoni Aguirreurreta Lazkano jauna-ren izendapena proposatzea.

Bigarrenik.- Honoko jakinarazpen honen berri izan ondoreneko 15 egun naturaletako gehienezko epean, interesdunek, karguak onartzen dituztela eta indarrean dagoen legedian adierazten diren kargu hauen ihardueretarako ezintasun edo inkompatibilitate kasuetako bakar bat ere ez dutela aldarrikatzen dutela sinatu beharko dute.

Hirugarrenik.- Akordio honen jakinarazpena eta Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Lehendakartzaren dagokion dokumentazioa tramitatzea, bere izendapenerako eta kargu hartzeari ekiteko.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, que representan el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, de acuerdo con lo dispuesto en el art.101 de la citada Ley Orgánica, lo siguiente:

ACUERDO

Primero.- Proponer el nombramiento de Juez de Paz titular del Juzgado de Paz de Irura, a D^a Izaskun Luluaga Zubelzu, con D.N.I. núm. 72.436.985 y domicilio en este municipio Zillar Kalea nº 9.

-Proponer el nombramiento de Juez de Paz Sustituto del Juzgado de Paz de Irura, a D. Andoni Aguirreurreta Lazkano, con D.N.I. nº 44.170.782-H y domicilio en Irura, Kale Txiki 6, 3.C.

Segundo.- En el plazo máximo de 15 días naturales, a partir de la notificación de la presente, los interesados deberán suscribir la correspondiente declaración de la aceptación de los cargos y de no estar incurso en ninguno de los casos de incapacidad o incompatibilidad, para el ejercicio de los mismos, señalado en la legislación vigente.

Tercero.- Tramitar certificación de este acuerdo, junto con la documentación correspondiente a la Presidencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, para su nombramiento y toma de posesión.

BOSGARREN GAIA

IRURAKO UDALEKO 2016RAKO LAN EGUTEGIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Orain unea da Udal honetako langileen 2016. ekitaldirako lan egutegia onartzea.

Hori ikusita udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

1.-Udal honetako langileen 2016rako lan-egutegia onartzea, honako lan-arloetakoak:

- Bulego orokorra.
- Obra eta zerbitzuen brigada.
- Hirigintza.
- Kultura
- Euskara zerbitzua
- Gizarte zerbitzuak.

2.-Gainera araudi orokorrak hauek izango dira:

a) Urteko lanaldiak 1.592 ordu izango ditu, dedikazio partziala duten langileentzat izan ezik. Azken hauei dagokien murrizketa partziala egingo zaie. Aipatutako ordu-kopurua baino txikiagoa azaltzen den egutegien kasuan, guztizko kopurura iritsi arteko gainerako orduak bilerekin, aparteko orduekin osatuko dira.

b) Astean ordutegi normalizatua: 35 ordu, 8:00etatik 15:00etara izango da.

c) Egutegia aurkeztu ez dutenek bulego orokorreko egutegia hartuko dute erreferentzia gisa.

d) Oporrak: 24 lanegun, astelehenetik ostiralera.

e) Norberaren arazoetarako lizentzia egunak: urteko lan-ordutegiko 6 egun.

f) Antzinasun egunak: seigarren hiruurtetako betetzea bi egun gehiago eta zortzigarrenetik hiruurtetako bakoitzeko egun bat gehiago.

g) Jaiegun ofizialak, estatukoak, autonomikoak eta tokikoak: 14.

SEIGARREN GAIA

**DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 1. EPAITEGIAK
397/2014 PROZEDURA ARRUNTAN EMANDAKO EPAIA
JAKINARAZTEA. DAR CUENTA DE SENTENCIA DEL JUZGADO DE LO**

CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO Nº 1 DE DONOSTIA EN EL PROCEDIMIENTO ORDINARIO 397/2014).

Estatuko Administrazio Orokorrak 397/2014 administrazioarekiko auzien errekurtsua jarri zuen Udaletxeko fatxadan presoak Euskal Herrira itzultzea eskatzen zuen pankarta bat jartzeko udal-jardueraren kontra. Gero, errekurtsua hura adostu zuen 2013ko martxoaren 26ko Osoko Bilkuraren akordiora hedatu zen. Jakinarazi da Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak epai hau eman duela:

“1.- ONARTU behar dut eta ONARTZEN dut ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK jarritako administrazioarekiko auzien errekurtsua IRURAKO UDALAREN jarduera administratiboaren kontra, hau da, Udaletxeko fatxadan presoak Euskal Herrira itzultzea eskatzen zuen pankarta bat jartzea eta goiburuan adierazten den 2013.3.26ko Akordioa. Baliogabeak direla adierazten dut, eta Udala Udaletxean jarritako kartel hori kentzera zigortzen dut.

2.- Salatutako administrazioari egozten zaizkio kostuak, 300 euroko mugarekin, kontzeptu guztiengatik”.

Halaber, jakinarazi da epaia irmoa dela, ez delako errekurritu.

Hori ikusita, Udalak jakinaren gainean geratzea adostu du, bertaratukoek aho batez hala

Se da cuenta que en el recurso contencioso-administrativo 397/2014 interpuesto por la Administración General del Estado contra la actuación municipal consistente en la colocación en la fachada de la Casa Consistorial de una pancarta en la que se reclama el regreso de los presos al País Vasco, posteriormente ampliado al acuerdo del Pleno de 26 de marzo de 2013 por la acordaba la misma, se ha dictado por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº1 de Donostia-San Sebastian, el siguiente fallo:

“1º.- Que debo ESTIMAR y ESTIMO el recurso contencioso administrativo interpuesto por la ADMINISTRACION GENERAL DEL ESTADO contra la actuación administrativa del AYUNTAMIENTO DE IRURA consistente en colocar en la fachada de la Casa Consistorial una pancarta que reclama el regreso de los Presos al País Vasco y el Acuerdo de 26.3.2013 relatado en el encabezamiento, declarando su nulidad y condenando al citado Ayuntamiento a retirar ese cartel colocado en el Consistorio Municipal.

2º.- Se imponen las costas a la administración demandada con el límite de 300 euros por todos los conceptos”

Así mismo se ha dado a conocer que la citada sentencia a devenido en firme al no haber sido recurrida.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes darse por enterada de la misma.

erabakita.

ZAZPIGARREN GAIA

GALDE ESKEAK.- Esparru honetan, gai hauek jorratu dira:

a) Mikel Gotzon Iturbe zinegotziak, haren taldearen izenean, eskatu du inprimagailua uztea beraien udal-taldearen lokalerako. Ordenagailua daukate, baina ezin dute inprimatu.

Alkateak erantzun du aztertuko duela.

b) Mikel Gotzon Iturbe zinegotziak galdetu du jarraituko den konpost komunitariorekin, jendea galdetzen ari baitaio.

Alkateak baietz erantzun du. Gero, adierazi du arazoa daukatela konpost-tasaren hobariarekin: ez dakite nori ordaindu behar zaion eta ez daukate daturik, eta Mankomunitateak ere ez ditu. Ez dakite nork egiten duen.

Ainhoa Ugaldek erantzun du zerrenda bat dagoela, eta Agenda 21eko teknikariarekin prestatu zutela.

Alkateak esan du zerrenda hori badaukatela, baina ez dakitela nork bete duen.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du marjina eman behar zaiola jendeari, eta ez dagoela arazorik jendeari galdetzeko egiten duen ala ez.

Alkateak Bildu taldeari galdetu dio hobaria ordaintzeko moduari buruzko iritzirik duten.

Ainhoa Ugalde zinegotziak dio hoberena dela bonoa ematea konposta egiten dutenei, hobariaren kopuruarekin, Irurako dendetan erosteko. Familiekin hitz egin ondoren, dendek gastuak ekar litzateke, Udalak ordaintzeko.

c) Mikel Gotzon Iturbe zinegotziak adierazi du jaso dutela Mankomunitatearen txosten ekonomikoa zaborra jasotzeko sistema berriaren kostuari buruz, eta joan den Batzordean oraingo udal-gobernuak esan zuela aurreneko sistema baino hiru aldiz merkeagoa izango zela eta orain hogeita hamar mila euro garestiago dela.

Alkateak dio bilera izan dutela kostu hori argitzeko, eta urriko txostenaren datuak eta oraingo txostenagokoak asko aldatu direla.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:50ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari naizen heinean.

ALKATEA

IDAZKARIA